

Urriaren 25an hasi, eta
azaroaren 11an amaitu zen
ikastaroa.



Urriaren **25an** hasi, eta
azaroaren **11an** amaitu zen
ikastaroa.



Urriaren *25ean* hasi, eta
azaroaren *11n* amaitu zen
ikastaroa.




Zifraz idatzitako zenbaki kardinalei leku-denborazko kasu-markaren bat erantsi behar diegunean, deklinatzean:


—Zenbakia **bokalez** bukatzen bada, kasu-marka erantsiko dugu:

Mugatu singularrean:


 2an (bian)


 3an (hiruan)

 2tik (bitik)

 3tik (hirutik)


 2ra (bira)

 3ra (hirura)

 * 2ean

 * 3ean

 * 2etik

 * 3etik

 * 2era

 * 3era



Zifraz idatzitako zenbaki kardinalai leku-denborazko kasu-markaren bat erantsi behar diegunean, deklinatzean:

—Zenbakia **bokalez** bukatzen bada, kasu-marka erantsiko dugu:

Mugagabeen:

- 2tan (bitan)
- 3tan (hirutan)
- 2tatik (bitatik)
- 3tatik (hirutatik)
- 6tara (seitara)
- 3tara (hirutara)



Zifraz idatzitako zenbaki kardinalei leku-denborazko kasu-markaren bat erantsi behar diegunean, deklinatzean:

— Zenbakia **kontsonantez** bukatzen bada, loturazko “e” bat ipiniko dugu:

Mugatu singularrean:

- 1ean (batean)
- 5ean (bostean)
- 10ean (hamarrean)
- 1etik (batetik)
- 5era (bostera)
- 10era (hamarrera)

- * 1an
- * 5an
- * 10tik
- * 1tik
- * 5ra
- * 10ra



Zifraz idatzitako zenbaki kardinalai leku-denborazko kasu-markaren bat erantsi behar diegunean, deklinatzean:

— Zenbakia **kontsonantez** bukatzen bada, loturazko “e” bat ipiniko dugu:

Mugagabeen:

- 5etan (bostetan)
- 10etan (hamarretan)
- 5etatik (bostetatik)
- 5etara (bostetara)
- 10etara (hamarretara)

- * 5tan
- * 10tan
- * 5atik
- * 5tara
- * 10tara



Zifraz idatzitako zenbaki kardinalai leku-denborazko kasu-markaren bat erantsi behar diegunean, deklinatzean:

— Mugatu pluralean, zenbakia **bokalez zein kontsonantez** bukatzen delarik ere, kasu-marka erantsiko dugu:

- 2etan (bietan)
- 8etan (zortzietan; *zortzi**re**tan)
- 7etatik (zazprietatik; *zazpi**re**etatik)
- 3etatik (hiru**re**etatik)
- 6etara (sei**re**etara; *sei**re**etara)
- 4etara (lau**re**etara)
- 5etan (bostetan)
- 10etan (hamarretan)
- 5etatik (bostetatik)
- 5etara (bostetara)
- 10etara (hamarretara)

(Ikus Euskaltzaindiaren 8. araua.)



ADI!!!

11n

11tik

31ra

71ko

91tik

51n

* 11an

* 11etik

* 31era

* 71eko

* 91etik

* 51an

- Zenbaki horiek "a" bokalaz bukatzen dira (... *hamaika*).



ADI!!!

10ean

10etan

* 10rean

* 10retan

30etik

30etatik

* 30retik

* 30retatik

50era

50etara

* 50rera

* 50retara

70era

70etara

* 70rera

* 70retara

130ean

130etan

* 130rean

* 130retan

90eko

* 90reko

- 10 zenbakiari ez zaio "r" bat gehitzen deklinatzean. Hau da:

Autobusa *hamarretan* etorri da.

Baina:

Autobusa *10etan* etorri da.

Ez:

* Autobusa *10retan* etorri da.



ADI!!!

- 4etan (lauretan)
- 4etatik (lauretatik)
- 3etara (hiruretara)
- 3etatik (hiruretatik)

- * 4retan
- * 4retatik
- * 3retara
- * 3retatik

- “Hiru” eta “lau” zenbakiak mugatu pluralean deklinatzean (eta bi zenbaki horietan bakarrik), “r” bat tartekatzen da zenbakiaren eta kasu-markaren artean, letraz ematean. Zifraz adierazten ditugunean, ordea, ez dugu kontsonante hori idatzi behar:

Autobusa *hiruretan* etorri da.

Baina,

Autobusa *3etan* etorri da.

Ez,

* Autobusa *3retan* etorri da.



- Laburpenak zein komunikazioen testuak *3,5eko* disketean bidali behar dira.
- Uztailaren *7an* hasi, eta uztailaren *11n* amaituko da helegitea aurkezteko epea.
- Langileek aho batez erabaki dute greba egitea apirilaren *10etik* aurrera.
- Jardunaldiak *2006ko* urtarrilaren *11tik 31ra* izango dira, Baionan.



Zenbaki ordinalak *garren* atzizkiaz osatzen dira; kontsonantez bukatzen dira, beraz. Hori dela eta, loturazko “e” bokala tartekatu behar dugu leku-denborazko kasu-markaren eta zenbakiaren artean. Gogoan hartu *garren* atzizkiaren ordeztuak jarri behar dela zenbaki ordinala zifraz adierazten denean (ikus Euskaltzaindiaren 18. araua).



5.etik



8.era



21.eko



60.ean



**5.tik*



**8.ra*



**21.ko*



**60.an*



**5garrenetik*



**8garrenera*



**21garreneko*



**60garrenean*



- Zerrendako gai hauek prestatuko ditugu: *2.etik 11.era* bitartekoak.
- 2. urtetik aurrera hasi zen hizketan haurra, eta *5.etik*, berriz, idazten.

